



Bertsoz jantzi zen Arrieskalleta.- Saio bikaina burutu zuten ostiral gauean Arrieskalleta Elkartearen Jon Maia eta Uxue Alberdi bertsolariak Eñaut Elorrieta kantariaren laguntzaz. Elkartea bete zuten 60 ikusleak oso gustura gustura geratu ziren bai afariko menuarekin bai bertso-saioak eman zuenarekin, bukaeran jaso zuten txalo zaparrada luzea lekuko. Bertso ia denak Eñaut Elorrieta Ken Zazpiko abeslari eta gitarra-joleak lagunduta abestu zituzten, eta kantari gernikarrak detaile polita izan zuen ikusleekin. Izan ere, lau abesti kantatu zituen gitarraren doinuez lagunduta, horietatik bi berri-berriak, lehenengo aldiz kantatu dituen Sarrionandiaren bi olerki. Gainontzean, bi ordu pasatxoko saioa izan zen, ia goizaldeko 2:00ak arte luzatu zena eta gai-jartzaile lanetan Unai Muñoa herriko bertsolaria aritu zen.

3 PAILAZOAK

Zazpikoloroa DVDa aurkeztu dute herriko pailazoek

Euskal Herri osotik etorritako lagunez inguratuta egin zuten Pirritx, Porrotx eta Mari Motots herriko pailazoek "Zazpikoloroa" DVDaren aurkezpen ekitaldia Villa Mirentxun larunbata goizean. Prentsaurrekoa emateko txiki geratu zitzaizkien hitzaldi aretoa eta ez zen kolore zein kanturik falta izan.



4 OMENALDIA

Ekintzaz beterikoa izan da asteburuko zaharren omenaldia

Aste osoan ekintza ugari egin ostean, asteburuan izan dituzte ekintza garrantzitsuenak herriko helduenek. Besteak beste, ibilaldi neurtua, igandeko meza, kontzertuak, dantza txapelketa eta ohiko bazkari herrikoiaz gozatzeko aukera izan dute, guztietan gogo handiz parte-hartuz.

5 MUSIKA

Lasarte-Oria IX. akordeoi jaialdian, kalitate handia

Lau talde aritu ziren Zero Setteren XV. urteurren ospakizun barnean antolatutako larunbateko jaialdian: Isidro Larrañaga Tolosako akordeoi orkestra, Pasaiaiko Illumbe Akordeoi orkestra eta herriko Udal Musika Eskolako trikitalariak zein Zero Sette Akordeoi Orkestra.



Donde las estrellas son ellos

Txakur eta katuen denda

Deskontu interesgarriak dauzkagu!!

Udazkeneko arropa beraientzat ere



Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610
Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com

Adituak dio



Pako Aizpitarte

Irakasle ohia

Auzolanean

Oraingutxi irakurtzen nion Sebastian Kerejetari zein garrantzia izan duen auzolanean Euskal Herrian eta berari atsegin izan bazitzaion niri ere beti atsegin izan zait. Gertaera onak kontatzeko izan dira beti auzolanean egindakoak eta gogoa dudana auzolan berezi bat ekarri nahi dut, herriko ikastolaren sorrera.

Ikastola berria beharrezkoa zela eta guraso guztiak asanbladan bilduta 1972ko uztailaren 22an bi erabaki sendo hartu zituzten: ikastetxe berria egiteko lurra erosi guraso bakoitzak hamar mila pezeta jarriaz, %90ek onartu eta dirua jarri zuten, eta obrak hasten zirenean eta ahalik eta merkean aterazitezen, peoi lanetan gurasoek hartuko zutelara parte. Horrela urteko larunbata eta igande guztietan 30 bat guraso azaltzen ziren lanetara. Horretarako karta baten bidez 50 bat guraso izaten ziren deituak. Urte guztian hiru aldiz tokatu zitzaion guraso bakoitzari. Erantzun ona eta zabala benetan.

Baina parte hartzea ez da honetan gelditzen. Baziren herrian neska mutil oso kezkatuak, Gure-etxeako Julian buru zutela, niregana etorri ziren galdera hau eginaz, ikastola gurasoen ardura bakarrik izan behar al du? Erantzuna berehalakoa izan zen ... noski ezetz. Parte hartu nahi baduzue, asteen zehar tokatzen diren jaiak zuentzat izango dira. Esan eta izan... 60 bat gazte biltzen ziren Okendo plazan eta prozesioan joaten ziren ikastetxe berriko obrara, atzetik Gure-etxeako furgoneta...

Lasai eta harrotasunez esan dezakete herritarrek Ikastola auzolanean egin dela.

Auzolana berpizten?

Auzolana ekarri zuen zutabera aurreko asteen Sebastian Kerejetak zaharren omenaldiko bazkariaren hasitapenak gogoratzerakoan eta ildo beretik jarraitu nahi izan du Pako Aizpitartek. Kasu honetan herriko ikastolaren sorrera ekarri du, oso gai aproposa kontutan izanda atzo bertan ospatu zela Andoainen Gipuzkoako ikastolen festa, Kilmetroak.

Ikusi da krisi garai honetan geroz eta gehiago direla, interes ezberdinak tarteko, auzolanaren aldarria euren gain hartzen duten talde eta alderdiek baina auzolana herritarrena da. Edozein kolore politiko edukita ere, bere herria, bizilaguna, hizkuntza aurrera ateratzen dadin hartzen den norberaren erabakia da auzolanean aritzearena.

Noski hau gauzatzeko beharrezkoa da talde sustatzaile bat, bere garaian euren seme-alabak euskaldunak nahi zituzten aita eta ama haiek bezala. Araza da urteetan jendeak geroz eta gauza gutxiago egin nahi izan dituela doan eta bizilagunaren ongizateagatik soilik.

Badirudi herri lanak bueltatzen ari direla pixkanaka, zantzuak ikusi ziren gertatutako azken uholdeekin, gure inguruko hainbat herrietan taldeak osatu eta erreka bazterrak garbitu ziren orduan. Orain ordea talde horiek isilik daude, lo, eta jendea hauen garrantziaren kontzientzia hartzen ari den arren, egiteko lan asko dagoela erakusten du. Herriko zaharrenek ondo gogoratzen dituzte Araetatik Zubietara bide bazterrak garbitzen zirenekoak...

Hitz eta pitz

Auzolanik ezagutu al duzu?



Joxeantonio Martikorena

Auzolanean aritu naiz ni, bide bazterrak garbitzen. Zubietan lan asko egiten zen auzolanean. Kanean gutxiago, agian. Orain makinekin garbitzen dituzte, eta lan askoz gutxiago da. Lehen ez zen jorنالیک, gailetak eta ardo pixka bat ematen zuten. Araetatik Zubietara bide estuan bazterrak eta ubideak garbitzen ziren, lar eta sasiak bidea gehiago estutzen zuten eta.



Maurizio Etxabe

Agindu horrelako egunean, goizeko 9etan edo, eta listarekin etortzen ziren, falta zenari multa jartzeko. Makina bat bidetan egiten zen auzolana, Zizurkildik hasi eta Orioko mugarriraino: ur zangak eta mendi bide bazterrak garbitu, zuloak tapatu... Derrigorrerako zen, bestela ez zen igoi inor joango. Ilunabarrean, gero, arrantxoia izaten zen eta ardoa ere bai.



Virginia Pérez

Gutxi gorabehera badakit zer den auzolana, baina ez dut sekula egin. Oso ondo iruditzen zait, gauza polita da herrikoen artean lana egitea musu truk, baina betikoan gaude, ezta? denok gabiltza korrika eta presaka. Bizimodua eta garaiak aldatu egin dira, baina, bai, berpizten ari da auzolana eta ondo legoke lehengo ohitura zahar hori errekuuperatzea.



Lontxo Egia

Nik ez dut auzolanik egin, hemen, kalekoa naiz eta Udaletxean egin nuen lana, baina, ezagutu, bai, ezagutu nuen auzolana. Lehen, baserrietan egiten zen. Hori bai, gerora ikastolen alde ere egiten zen lan. Ondo etortzen dira gauza horiek, ohitura oso ona da auzolanean aritze hori. Oso ondo dago horretarako herritarrek biltzea. Denbora izanez gero.

Iruditan



1974. urtean hasi ziren ikastola berria eraikitzen, lanetan gurasoek parte hartu zuten kosteak merketzeko.

Gurasoen lana

1966. urtean sortu zen Landaberri ikastola. Guraso batzuen ekimenez Andre Joakina Enean hasi zuen ibilbidea herriko ikastolak, Hernaniko eremuan. Luzuriaga familiarena zen etxea eta dirurik ez zegoenez, Aurrezki Kutxarekin ordainketa mailegua negoziatu zen bilera eskoren ondoren. Azkenean guraso multzo batek dirua jarri zuen Kutxarekin zorra kitatzeko. Urtekin urtera ikasle kopurua handitzen joan zen 1969-1970 ikasturtean leku nahikoa izan ez eta toki bila hasi ziren guraso, irakasle eta hainbat herritar. Horrela pisu ezberdinetan gelak sortu onstean, azkenean Zubietan lurra erosteko aukera izan zen 1974ean.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

KULTURA



Pirritx, Porrot x eta Mari Motots lagun ugaz inguraturik prentsaurrekoa hasi aurretik.

“Zazpikoloroa” DVD oparoa salgai jarri dute

Herriko Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek “Zazpikoloroa” euren azken lana lagunez inguratuta aurkeztu zuten Villa Mirentxun larunbatean

Txiki geratu zen Villa Mirentxuko hitzaldi aretoa Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen “Zazpikoloroa” DVDaren aurkezpen prentsaurrekoan. Izan ere, lagun ugaz inguratu egon ziren herriko pailazoak, ekitaldi alai eta koloretsu batean. Besteak beste, bertan izan zituzten Anjel Olanar Etiopiako Wukro herrian misiolari dabilen hernaniarra, Tolosako Bonberenea Txaranga gaztea, Etiopia Utopia elkarteko lagunak, Ekogras-eko ordezkariak, Manolo Urbietaren ahaideak eta Gizakien Lurra elkarteko kideak besteak beste.

Jon ALTUNA EGITEGI

Koloretsua. Alai eta koloretsua izan zen oso larunbata goizean Villa Mirentxun Pirritx Porrotx eta Mari Motots pailazoek eskainitako prentsaurrekoa.

Aurkezpenarekin hasi aurretik, Euskal Herri osotik etorritako lagunekin talde argazki erraldoia ateratu zuten herriko pailazoek Villa Mirentxu atarian, eta ondoren egin zuten aurkezpena.

Bertan, aurkeztu berri duten Zazpikoloroa DVDan ageri diren erreportajeetako pasarte labur batzuk eskaini zituzten, bertaratuen gozamenarako.

Gainera, ez zen kantu eta giro itzelik falta izan prentsaurrekoan. Josu Txapartegi “Txapas”-en laguntzaz, hainbat abesti kantatu zituzten Aiatik gurera etorritako haurrek. Tartean, “Behin betiko” klasiko edota “Maite Zaitut” pailazoaren kantu ezaguna.

Villa Mirentxuko aurkezpena amaitzean, Sagardotegi plazara joan ziren Bonberenea Txaranga egindako kalejira bizi batean, eta Jalgi kanpoan hamaiketako ederra egin zuten prentsaurrekoan egon ziren lagun guztiak.

Yanelle eta Motxila 21

Gogoan izan zituzten era berean prentsaurrekora etortzerik izan ez zuten laguntxoak, Yanelle Sidokpohu eta Motxila 21 hain zuten.

Lehenak ahoko infekzio bat dela kausa, ezin izan zuten prentsaurrekora bertaratu, baina animo eta muxu pila bidali zizkioten herriko pailazoek Donostiako ospitalera.

Motxila 21 down sindromea duten neska-mutiluez osatutako taldeak ere ezin izan zuten prentsaurrekoan parte-hartu, diskoaren grabazioarekin buru-belarri dabilzako. Hauek ere gogoan izan nahi zituzten eta euren bideotxo bat jarri zuten aurkezpenean.

Zazpikoloroaren edukia

Herriko pailazoaren DVD berria hiru zatitan banatuta dago. Batetik, “Zazpikoloroa ikuskizuna”, 2012ko martxoaren 6an Andoaingo Bastero Kulturgunean zuzenaren grabatutako saioa osorik ikusteko aukera izango da.

Bestetik, azkenaldian egin dituzten zazpi erreportaje eta bideoklip izango dira ikusgai DVDan: “Irri konpontzailea Etiopian” (2011ko udaberrian Etiopiara egindako bidaiaren hausnarketa), “Motxila 21” (Oztopoak gainditzeko nahiak elkartu dituen rockeroak), “Londresen” (2012ko udaberrian Londresera egindako bidaiaren kronika), “Manolo” (Imanol Urbietaren emari oparo eta eskuzabalaren eskertza), “Gizakien Lurra” (Haurrak sano eta alai haztea helburu duen elkarretea), “Bonberenea Txaranga” (Kaleak musikaz eta kolorez betetzen dituen txaranga) eta “Olibatxo” (Sukaldeko olio zikina birziklatuz, natura bi aldiz zaintzen duen oliba erraldoia).

Zuzeneko eta erreportaje guzti horiez gain, azkenik, Pirritx Porrotx eta Mari Mototsen abestien partiturak izango dira eskuragai DVDan bertan, PDF bidez inprimatu ahal izango direnak.

Beraz, “Zazpikoloroa” erosten duenak eduki guzti hauez hornitutako DVD bikoitza eskuratuko du.

DANTZA

Plaza dantza lehen saioa gaur

Ttakun kultur elkarteak antolatzen duen plaza dantza ikastaroak gaur astelehena hasiko du ikasturte berria. Dabid Egizabalen eskutik, muxikoak eta plazetan dantzatzaren diren hainbat doinuren pausak ikasi ahal izango dira urtean zehar.

Saioak asteartetan 20:00etatik 21:30era izango dira Sasoeta ikastetxeke gimnasioan. Hala ere, antolatzaileek azaldu dute, urrian zehar saioak astelehenetan egingo direla. Saioak doan dira eta euskaraz. Herritarrek parte hartzera animatzen dituzte antolatzaileek, izan ere ez da zertan saio guztietara joan beharrik.

AMALUR

Ikasturte hasierako emanaldia Okendon

Amalur trikiti eta pandero eskolako kideek ikasturte hasierako emanaldia egin zuten Okendo plazan ostiralean. Adin guztietako ikasleek hartu zuten parte eta eguraldi ona lagun, asko izan ziren bertan bildutako herritarrek. Pasodobleak, tangoak, abesti herrikoia denetarik izan zuten euren errepertorioan.

Jon Lasa eskolako zuzendariak adierazi moduan, Amalurren lana nola egiten duten erakusteko aukera ona da lehen emanaldi hau. Honekin batera trikiti eta panderoa jotzen ikasi nahi dutenek eskolara hurbiltzeko animatu nahi izan zituen oholtzatik.



GAZTEAK

Zukgua prozesuaren aurkezpena

Euskal Herriko gazteek herriz herri abiatu duten prozesua da Zukgua (www.gaztezukgua.info). Prozesu honen bitartez gazte antolakunde bat sortzeko asmoa dute, independentziaren aldeko eta ikuspegi ezkertiarreko gazte osatuko dena. Herrian, Sagardotegi plazan hainbat gazte Zukgua prozesua aurkezteko ekitaldi berezia egin zuten. Megafonoa eskutan hartuta, independentzia eta sozialismoaren aldeko hainbat lelo zabaldu zituzten. Postu moduko bat ere jarri zuten gerturatzaren ziren gazteei mazedonia banatzeko eta horrekin batera informazio-testu bat banatu zuten gazteen artean. Eztabaida prozesua otsailera arte luzatuko da, hiru bloketan banatuta. Beraz, lehenik, Lasarte-Oria “zukguzteko” asmoz, antolatzaileek urriaren 12an arratsaldeko 18:00etan Villa Mirentxun egingo den “Kapitalismoa eta Nazioarteko egoera orokorra” eztabaidan parte-hartzeko deia luzatu dute (ondoren afaria egingo da Xirimirin). Gainontzeko bi blokeetako eztabaidagaiak “Euskal Herriko ziklo politiko berria” eta “Gazte estrategia” izango dira.





San Pedro Elizan eginko meza benetan jendetsua izan zen.



Bazkarian 450 jubilatu batu ziren, eta bapo bazkaldu ostean egin ziren omenaldiak.



Ostiraleko dantzaldia, Biyak bat-en abesbatza, Zero Setteren kontzertua ere izan dira.

Zaharrenei, gorazarre

Herriko pertsona adinduei omenaldia egin zaie

Lasarte-Oriako pertsona adinduek hainbat ekintza izan dituzte astean zehar, zaharren omenaldiko ospakizunak direla eta. Ekintza nagusiak asteburuan izan dituzte, besteak beste, ibilaldi neurtua, igandeko meza, kontzertuak, dantza txapelketa edo ohiko bazkari herrikoia izan dira horietako batzuk.

TXINTXARRI

Zaharren omenaldiko ekintza nagusiak izan dira asteburuan gure herrian.

Ostiralean, Lan eta Lan antzerki taldeak "Melocotón en Almibar" antzezlan eskaini zuen.

Larunbatean, ekintza bereziak egin zituzten.

Batetik ibilaldi neurtua izan zen herriko kaleetatik barrena. Honetan 54 bikotek parte hartu dute Okendo plazan hasi eta bukatzen zen 4 km eta 600

metroko ibilbidea eginaz

Bestetik, dantza txapelketa izan zen eta hiru doinu dantzatu behar izan zituzten parte-hartzaileek: pasodoblea, balsa eta tangoa.

Igandean, berriz, San Pedro elizan meza nagusia entzun ostean, Manuel Lekuona Kultur etxean Biyak Bat elkarteko abesbatza eta Zero Sette akordeoi orkestraren emanaldia izan zen.

Jarraian, bazkarri herrikoia izan zen, 450 lagunekin. Honetan Rufino Martin eta Juanita Alcain izan ziren

omenduak. Amaitzeko, dantzaldia izan zen.

Biyak Baten urteurrena

Eta ez dira ospakizunak amaitu. Gaur Biyak Bat elkarteak 34 urte betetzen baititu.

Urteurrena ospatzeko gaur hainbat ekintza antolatu dituzte.

Goizean, Ama Brigitarren komentuan meza izango da. Hau amaitzean luntxa egongo da komentuko plazara hurbiltzen diren pertsona adinduentzat.

Arratsaldean, berriz, urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteak bilduko dira Biyak Bat elkartean elkarteak eta udalak banatuko dizkien opariak jasotzera.

Jarraian, afari-merienda eta dantzaldia izango dute.

2012ko omenduak



Rufino Martin (1923, Buenos Aires, Argentina) gustura zegoen egin zioten omenaldiaren ostean: "Gaztetan etorri nintzen Espainiara, Salamancako Ciudad Rodrigo herrian behiak zaintzen unai gisa jardun nuen, harik eta 1972an Lasartera etorri nintzen arte eraikuntzan lan egitera. Orain, denbora daukat paseatu eta bilobekin denbora askoan egoteko".

Juanita Alcain (1920, Lasartera) herritarra ilusioz beterik eta esker onez mintzo zen omenaldia amaitzean: "Gaztetan etorri nintzen Espainiara, Salamancako Ciudad Rodrigo herrian behiak zaintzen unai gisa jardun nuen, harik eta 1972an Lasartera etorri nintzen arte eraikuntzan jardun nuen 42 urtez. Herri txikia zen Lasarte, denok ezagutzen genuen elkar, orain hiri bat da".



Ibilbidea azkarren egin dutenek, 34. postuan izan direnak (Biyak Batek dauzkan urteak) eta azkenekoek saria izan dute estreinekoak.

Akordeoi doinuak kultur-etxean

Manuel Lekuonan ospatutako Lasarte Oria IX. Akordeoi jaialdian, kalitate handia

Zero Setteren XV. urteurren ospakizunen barnean kokatu beharreko jaialdia izan zen larunbatekoa. Bertan lau talde aritu ziren: Isidro Larrañaga Tolosako akordeoi orkestra, Pasaiako Illumbe Akordeoi orkestra eta herriko Udal Musika Eskolako trikitilariak zein Zero Sette Akordeoi orkestra. Talde bakoitzak bere estiloari helduta, kalitatezko emanaldia osatu zuten guztira 13 pieza eskainiz.

Jon ALTUNA EGITEGI

Zero Sette XV. urteurreneko ospakizunetan dabil buru-belarri. Horren erakusgarri izan zen larunbateko akordeoi jaialdia. Urtarrilaren 14an lehenengo saioa egin ostean, asteburu honetako izan zen bigarrena, eta abenduaren 15erako beste emanaldi bat dute hitzartuta Zero Setteko kideek Sanna Trio taldearekin.

Kalitate printzak

Gustura atera zen jendea kultur-etxeko aretotik. Lau taldeak txukun aritu ziren, bakoitza bere erara.

Lehen taldea Tolosako Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra izan zen. Kontzertu indartsua eskaini zuten, sor-

presa txiki batez lagunduta.

Jo zituzten hiru piezen artean, azkenak piztu zuen jendearen arreta. Akordeoi doinuez haratago, Toumas Holopainen finlandiarren "Ghost Love Score" kantua interpretatu zuten, metal kutsu nabarmenarekin, aho-tsa, kitarra elektriko eta bateriaz lagunduta. Benetan apurtzailea izan zen, eta publiko gazteenak gozatu ederra hartu zuen, txistu eta txalo zaparrada ozenez musikarien lana eskertu nahi izan zuen publikoak.

Illumbek, estilo aldaketa

Illumbe Akordeoi orkestrak oso bestelako emanaldia eskaini zuen. Goxo, luze eta zuzen aritu ziren, tolosarren indar erakustaldirik eman gabe.



Zero Sette Akordeoi Orkestra txukun aritu zen José Manuel Cresporen zuzendaritzapean.

Herritarrak, txukun

Andrea Beobide, Andrea Gonzalez eta Naroa Goikoe-txea Udal Musika Eskolako ikasleek ere bi pieza eder eskaini zituzten. Tartean, Kepa Junkeraren "Berhueta" konplikatua. Miren Etxenagusia irakaslearen laguntzaz, bikain moldatu ziren hiru ikasle gazteak eta publikoak txaloz agurtu zituen.

Bestalde, José Manuel Crespo zuzendari berriaren gidaritzapean, ondo moldatu Zero Setteko musikari lasarteoriatarak.

Orotara, lau pieza jo zituzten, horien artean, "Euskal Herriko Kantak". Berezia izan zen duela 25 urteko lehen kontzertu hartan jo zuten kantuetako bat berriro interpretatzea eta emozio aurpegiak nabari ziren musikari

eta ikusle batzuen artean. Gainontzean, beti bezala, eroso eta herritarren babesean txukun aritu zien.

Denek batera, Deep Purple

Emanaldiari amaiera emateko, Deep Purple talde mitikoren "Smoke On The Water" kantua jo zuten, hurbildu ziren ikusleen gozamenerako, akordeoia eta rocka uztartzuz.



Erlantzak, abaraskak, argizariak, hauspoak... erakutsi zituen Antonio Eleizegik

Udazken festa arrakastatsua Zabaletan

Antonio Eleizegi erlezainak solasaldi aparta eskaini zien hurbildu ziren auzokide ugari. Erlezantzan duela 30 urte hasi zen Zaltzate baserriko Antonio eta argi ikusi zen gaiari buruz zenbat dakien eta nola bizi duen bere zale-tasuna. Erleen eta erlezantzen inguruko gai ugari azaldu zituen, oso modu argian eta zehatzean, besteak beste: erle motak eta bakoitzaren zeregina, erleen ugalketa, antolaketa, erlearen bizi-zikloa, erlantzaren egitura eta bere

urteko zikloa, erlantzetatik lortutako produktuak eta nola lortzen den bakoitza...

la ordu t'erdiko saioa laburra suertatu zen eta gehiago ere luzatzeko prest zegoen jendea sardinak zain egon ez balira...

Udazkenera, sardinak janaz

Jarraian festa giro bikainean sardina jana ederra dastatzeko aukera izan zuen hurbildu ziren herritar guztiak. Bertakoak eta baita Hernanitik festa honetara etortzen den ohiko lagun taldeak giro aparta jarri zuten.

Beste ekintzak

Honetaz gain, Zabaleta auzolanek hilabete honetarako prestatu duen egitarauaren barruan, urriaren 11ean, osteguna "Ogiyik karri etzun semia" antzezlan eskainiko du Txirene antzerki taldeak.

Era berean, urriaren 12an, Oinatz taldeak Igartubeiti baserri eta Zumalakarregi museora egingo duen irteerara bat egiteko gonbita egiten die auzotarrei. Hauek auzoko dendan izen-eman behar dute.

ANAIAK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!

ETORRI IKUSTERA!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386



IBILALDIA.-

Ibilbideen 5. eguna aurkeztu zuten

Urriaren 14an, igandean ospatuko da eskualdeko ibilbideen eguna eta berrikuntza bat dakar

Hainbat dira Buruntzaldeko herriak batzen dituzten bide eta bidezidorrak. Hauek ezagutu eta herritarrek lehiakorra ez den kirola egiteko asmoz, Buruntzaldeko udalek Ibilbideen eguna ekimena sortu zuten. Aurten Ibilbideen 5. eguna egingo da urriaren 14an eta berrikuntza bat dakar, Santuenea eta Aginaga arteko bidea. Ostadar SKT-k lehenengo urteko esperientzia errepikatuko du eta haur eta gazteei zuzendutako txangoa antolatu du Lasarte-Oria eta Aginaga artean.

Urriaren 14ean, bosgarren urtez, ibilbideen eguna ospatuko da Buruntzaldean eta ostiralean herrietako udal ordezkariak aurtengo edizioa aurkezpena egin zuten.

Tasio Arrizabalaga Lasarte-Oriako kirol zinegotzia, Iñaki Ugarte Usurbilgo kirol zinegotzia, Mikel Pagola Urnietako alkatea eta Ainara Rodriguez Andoaingo kirol zinegotzia izan ziren aurkezpenaren.

Tasio Arrizabalagak azaldu zuenez, "lehiatzea ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den kirola egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa-ingurune natuala ezagutzeko aukera dugu" ekintza honi esker.

Santuenea-Aginaga

Buruntzaldeko 5. Ibilbideen eguna urriaren 14an, igandea, goizeko 09:00ak eta 14:00ak bitartean ospatuko da.

Honetan bost ibilbide egiteko aukera izango da: Andoain-Lasarte-Oria, Andoain-Urnieta, Andoain-Usurbil, Lasarte-Oria-Urnieta eta Lasarte-Oria-Usurbil.

Aurten gainera, berrikuntza bat aurkeztu dute, Santuenea eta Aginaga arteko bidea egokitu eta zati hori ere egin ahal da.

Honetaz gain ibilbide hauen trazatuak, profilak eta distantziak herrietan dauden paneletan erakusgarri daudela eta iaz Buruntzaldeko ibilbideen plano bat ere atara zela gogoratu zuten.

Kontrolak eta oparia

Era berean, aurreko edizioetan bezala, herri bakoitzean kontrol une bat egongo dela azaldu zuten.

Usurbilen Santueneako auzoan, Zorroitzeko zubiaren parean eta Aginaga auzoan, Mapil baserriaren ondoan egongo dira kontrolak; Ando-



Andoain, Lasarte-Oria, Usurbil eta Urnietako udal ordezkariak Ibilbideen 5. eguna aurkeztu zuten Lasarte-Oriako Udaletxean.

ain, Udaletxe azpian; Lasarte-Orian, San Pedro elizaren ondoko plazan eta Urnietan, Udaletxe azpian.

Kontrol hauean ibilbideei buruzko argibideak emateaz gain, mokaduak eta edariak banatuko dituzte.

Eta Iñaki Ugarte, Usurbilgo kirol zinegotziak azaldu zuen legez, ibilbideen egunean partehartzen duen herritar "bakoitzari txartel bat emango zaio, abiatzen den lekuko ziguilarekin eta partaide batek bi ibilbide eginez gero, egunaren oroirari den poliesterezko motxila jasoko du opari".

Autobusa

Honetaz gain, autobus zerbi-

tzua egongo da herri batetik bestera. "Zerbitzu hau erabilizko derrigor, hasieran jasotako txartela zigitua aurkeztu beharko da", azpimarratu zuten prentsaurkeoan.

Autobusak hiru bidai egingo ditu, 12:00ak, 13:00ak eta 14:00ak aldera. Aginagatik aterako da eta xx:05ean San Inazio biribilgunean izango da, xx:15ean Lasarte-Oriako Dorretzeko biribilgunean, xx:30ean Andoaingo Goiko plazaren atzealdean eta Urnietan kiosko geltokira iritsiko da xx:40ean.

Ibilbideen egunari buruzko informazio gehiago nahiez gero, buruntzaldea.org orrialdean eskuragarri dagoela

azpimarratu zuten prentsaurkeoan.

Gazteentzako ibilbidea

Honen harira, Ostadar SKT-eko Mendi sailak haur eta gazteei edo familia guztiari zuzendutako ibilbidea antolatu du, Lasarte-Oria eta Aginaga artean.

Iaz Lasarte-Oria izan zuen arrakasta ikusirik esperientzia errepikatuko dute.

Hitzordua urriaren 14ean, goizeko 9:00etan, San Pedro eliza ondoan.

Animatzen direnek Usurbileraino edo Aginagaraino egin dezakete bidea.

Antolatzaileek oinetako aproposa eramatea gomendatzen dute.

BOLA-JOKOA.-

Belaunzaran, Otaegi eta Galan irabazle bola-joko txapelketan

Bederatzigarren urtea da dagoeneko Ostadar SKT-ko bola-joko atalak Santi Garcia eta Martin Egaña oroimenezkoa antolatzen duena. Txapelketa honetan Gipuzkoa osoko bolariak bildu ohi dira eta aurtengoan ere horrela izan da.

Atzo goizean Michelingo Kirol guneko bolatokian burutu zen txapelketan, 23 bola-jokari izan ziren lehiari hiru mailatan banatuak: Gipuzkoa mailakoak, herrikoak eta emakumezkoak.

Lehia handia

Gipuzkoa mailako sariketan Belaunzaran urnietarra suertatu zen garaile, 46 birla botata. Bigarren Lazkano (45), eta

Goenaga eta Retegiren artean banatu zuten hirugarren postua (44). Herritarren artean, Otaegi izan zen lehena 43 birla botata, Montes eta Lasa atzean uzituta. Emakumezkoetan berriz, Charo Galanek 29 birla botata irabazi zuen txapelketa Zuru-gain eta Aizpeolearen aurretik.

Saribanaketa

Lehiaren ostean, saribanaketa izan zen. Honetan Egaña eta Garcariaren alargunei oroirari bana eman zitzaion, aurreko txapelketatako argazkiak bilduz zituen CD batekin lagunduta.

Jarraian, alargunek eta antolatzaileek maila desberdinetako sariak banatu zituzten parte-hartzaile guztien artean.



Saridun guztiak taldean bilduta Egaña eta Garcariaren alargunekin batera. Giro ona izan zuten txapelketan zehar.

Agenda

Larunbata 13, 19:30ean, Jalgi Kafe antzokia



Bikotekako bertso txapelketa jokoan

Maratoi urtea dugu eta honekin batea, herriko bikotekako bertso txapelketa antolatu du Lasarte-Oriako Bertso Eskolak. Bikote bakoitzan bertso eskolako kide bat eta herritar bat izango dira. Larunbatean 6 bikotek txapelketako final laurdenak herriko tabernatan izango dira eta final erdia Jalgi Kafe-antzokian jokatuko da. Finala Euskaren 8. Maratoidan jokatuko da, urriaren 20ean, gauean.

Ipuin Kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Azteazkena 17, 18:00etan

Pello Añorga 4 eta 5 urte arteko haurrei ipuinak kontatuko dizkie.

Jai

BIYAK BAT ELKARTEA
Astelehena 8

Biyak Bat elkarteak 34. urteurrena ospatuko dute:

11:00etan, Meza Ama Brigitarren komentuan.

Jarraian, luntxa.

17:00etan, Urrezko ezteiak egiten dituzten bikoteei oroigarri banaketa.

18:00etan, afari-merienda.

19:00etan, dantzaldia.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Urria osoa

Sancho Pereg artistaren margoak ikusgai izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 1-Astelehena 15

Medicus Mundi elkartearen argazki erakusketa ikusgai izango da.

Andoain

Erakusketa

BASTERO KULTURGUNA

Irailaren 28tik-Urriaren 13ra

"Zuzeneko instanteak" argazki erakusketa. Musikazuzenean.com webguneko 15 argazkilarik Euskal Herriko musika talde desberdinei egindako argazkiak.

Lasarte-Oria

Zinea

Igandea 14, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Ace Age 4" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.



Osteguna 18, 21:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, Oken-do Zinema taldearen eskutik, "Gartxot"-en kondairaren marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 4,50 euro; internetez, 4 euro. Euskaraz.

Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Osteguna 11, 23:45ean

Heavy metal gauaz gozatzeko aukera Steel Horse eta Blast Wave taldeen eskutik. Sarrerak aurretik erosita 6 euro, egunean bertan 8 euro.

Antzerkia

ZABALETA AUZOIA

Osteguna 11, 19:30ean

EHAZEK antolatuta, antzerkizale sarearen barruan, Txirene antzerki taldeak "Ogiyik karri etzun semia" lana aurkezuko du.



Herritarren txokoa

Euskararen VIII. Maratoido kamisetak salgai

Urria gerturatzen doa eta dagoneko Euskararen Maratoido kamisetak salgai jarri dira Ttakunen. Zortzigarren edizio honetako leloa Bihotzetik Plazara eta irudiak apaintzen ditu kamisetak.

Helduentzako eta haurrentzako neurritan atera dira kamisetak. Helduenak 15 eurotan daude eskuragarri eta umeenak berriz 10 eurotan.

Galiziara bidaia

Biyak Bat elkarteak VIBO bidai agentziaren laguntzarekin Galiziara bidaia antolatu du, urriaren 14tik 20ra.

Bidai honetan, besteak beste, Santiago, Vigo, O Grove edo La Toja bisitatuko dituztela aipatu digute elkarteko lagunek.

Bidai honetaz gozatzeko, elkarteko bazkideek 325 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 355 euro.

Izen-emateko edo informazio gehiago eskuratzeko elkarteko bulegora hurbildu behar dira interesatuak, gozeta 10:30etik 12:30era.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, lau betaurreko graduatuak, eguzkitako betaurrekoak, hiru mugikor, txandaleko jaka bat eta txirinda bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Irakokizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalarri herritarren parte hartzea sustatzeko irakokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreran dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Ildatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo irakokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Eskutitza

Zinema ziklo berria martxan

Agur zinemazale bat udazkenarekin batera hasten dugun ziklo berri honetan.

Gure herriarekiko dugun konpromezuan aurrera egiten dugu.

Hitz handia konpromezua. Hitz handia herria.

Iaz etapa berrikuntza garrantzitsuz betetako etapa berri bati ekin genion, esate baterako ohiko ostegunetako emaldiaz gain, igandeetan ere proiektzioak egin genituen.

Proposamena herritarren gustuko izan zen eta ekimena mantentzeko asmoa dugu eta ahal dugun heinean beste berri batzuk martxan jarri nahiko genituzke.

Egiten ari diren aldaketen aurrean hausnarketa garaia dela dirudi.

Guk ongi pasatzen eta gozatzen gona bidatzen zaituztegu, bereziki. Eta dantzatzea, abestea, zinema ikustea, kultura, lagunekin biltzea... da gogo egokia izateko errezeta hobereana.

Beldurrak kildu eta txikiak egitera garamatza eta hain zuzen, krisi egoeratan garrantzitsuak eta handiak garelako jakin behar dugu eta bizitza azkar igaro dela eta bizitzeak merezi duela konturatzen gara.

Zinemak denbora asko darama hor,

gurekin, abenturak bizi, beste lekuetara, beste kulturetara edo beste garaietara bidaiatzera edo beste begirada bai izatera laguntzen gaitu.

Amestera, barre egitera, negar egitera, aurkitzera, haztera, maitatzera... eta gorrotatzera.

Gero eta herri gutxiago dira zineklub aukera hau dutenak, herriko pertsona batzuen eta Udaleko kultura saileko lan-kidetzaren emaitza. Lasarte da herri pribilegiatutako bat. Izan ere, 25 urte daramatza beste batzuk hasi zuten altxor hau mantentzen.

Zuei hausnarketa hau jakin arazi nahi dizuegu eta honetaz gozatzeko nahi dugu.

Aurtengo Zinemaldiak Kultur etxean urte honetan zehar ikusi ahalko ditugun hainbat film eskaini ditu.

Gure konpromezua hor egotea da eta garai hauetan eta herriarentzat egokiena aukeratzea da.

Guretzat atsegin handia da bizi garen lekuan gustatzen zaigun zerbait egiten laguntzea. Biziaz gogor sentitzen gara eta lasartearrango.

Eskerrik asko gurekin bat egiteagatik.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Okendo Zinema Taldea

Aste kultural biribila Atsobakar auzoan

Semblante Andaluze-eko kideek antolatutako ekintzek auzoari bizia eman diote

Hainbat izan dira asteburu honetan Semblante Andaluz elkarteak antolatutako Aste Kulturala ekintzetara hurbildu diren herritarrak. Txapelketak, tren-maketen erakusketa, buruhandiak, musika emanaldiak... izan dira asteburuan Semblante Andaluz elkarteko egoitzan eta Golf plazako taulan. Aspertzeko astirik ez da izan.

Semblante Andaluz elkarteak asteburu honetan Aste Kulturala ospatu du.

Ostiralean, gozogintza ikastaroarekin eman zieten hasiera ekitaldiei.

Hala ere, hasiera ofiziala, 20:00ak aldera izan zen. Elkartean bildutako herritar, bazkide eta udal zein diputazioko ordezkariak agurra dantzatu zieten Erketz EDT-ko lagunek eta Abdon Fernandez lehendakariak hitz batzuk eginnahi izan zituen.

"Aste kulturalak helburu



Mus eta tute txapelketak harrera ona izan zuen, parte-hartzaile askorekin.

bikoitza dauka, auzoari bizia ematea eta hemengo zein Andaluziako kulturak uztartzea". Jarraian, luntxa izan zen bertaratu ziren auzotarentzat.

Haurrak eta txapelketak

Haurrak izan ziren larunbatean protagonistak.

Goizean, tren maketen

erakusketa izan zen eta hauek martxan ikusteko aukera ere izan zuten auzoko txikiek.

Arratsaldean, berriz, txikienek marrazki lehiaketa izan zuten eta era berean, Jalguneko buruhandiek lasterketa ederak egin zituzten, txokolatada gozoa dastatu aurretik.

Bien bitartean, helduen



Semblante Andaluz-eko dantza eta abesbatza taldeen ikuskizuna.

toka eta mus eta tute txapelketak jokatu ziren, harrera oso onarekin.

Ikuskizun ugari

Honetaz gain, O'Club taldeak rock kontzertua eskaini zuen eta "Moito" umorezko ikuskizuna izan zen afaldu ostean.

Atzo, berriz, elkarteko

bazkideak eta elkarteko lagunekin bazkari herrikoia handia egin zen.

Jarraitzen, elkarteko abesbatza eta dantza talde desberdinen emanaldiak izan ziren Golf plazan.

Aste kulturalari amaiera emateko, gitarra elektriko bat zozketatu zuten.

euskararen 8. maratonia

ANIMATU partehartzera!!

Udaletxe berria ezagutu
 Mintzodromoa
 Babarrun txapelketa
 Benedika mendira igoera

Otorduetako TXARTELAK salgai
 Ttakun kultur elkartean
 eta Jalgi kafe-Antzokian

Urriak 20

Bazkaria haurrak 2 euro eta helduak 6 euro

Afaria 18 euro

Urriak 21

Bazkaria 6 euro

Txekor jana 9 euro

12 egun

falta dira

www.euskararenmaratonia.com



Lasarte-Oria 2012_{ko} urriaren 20_a eta 21_a